



Testu honek antzerkiak eremu sozial eta politikoan duen lekuari buruzko hainbat ikuspuntu, hausnarketa eta esperientzia jaso nahi izan ditu. Euskal Herrian lantzen den nazio ikuspegia izan da antzerkiaren tokiari buruz gogoetatzeko testuingurua eta galderak, irudimen ariketak eta eskakizunak izan dira errepikaz erabili diren formulak. Bakarrizketa eszeniko moldean sortua eta esana izan den ezkerro, testuak ez ditu proposamen zehatzak plazaratu nahi izan, egiazko ideia sendoak irudikatze guneak sortu baizik. Batetik, kultur langileen eta, oro har, euskal komunitatearen ikusmira zabaltzea eta ekintza suspertzea eta bestetik, erakunde eta politikariei zuzentzea izan dira helburu nagusiak.

Giltza-hitzak: Antzerkia. Euskara. Nazio ikuspegia. Arte garaikidea. Kulturgintza.

Egun on, ni Edurne Azkarate naiz, aktorea, eta ezin nuen atrila erabiltzeko aukera galdu.

Lehenik eta behin, mila esker Eusko Ikaskuntzari nire ahotsari tarte bat egiteagatik.

Irudimena sortzaileon lehenengo baliabidea dela jakinik, irudimen ariketa bat egitera natorkizue. Gonbidatuak zaudete, noski, bide hau nirekin konpartitzera.

Artea eta entretenimendua (edo denbora-pasa) bereizten ez dakigun gizarte honetan, munduko historiako gizarte indibidualistena den honetan, planeta osoa suntsitzera kondenatua dagoen gizarte honetan... antzerkiaren etorkizunari buruz gogoetatzeko eszenatoki ezin hobea iruditzen zait Euskal Herria. Bai, bai. Benetan. Ez zenuten espero eh. Flipatzen ari zarete baietz? Barkatu. Zur eta lur utzi zaituztet, ez?

Hain zuzen ere, kultura herri egitasmoaren barruan dagoela sentitzen dudalako. Hori barneratua daukagu, hori ez da edonon gertatzen eta hori gero eta gutxiagotan gertatzen da.

Beno, hobeto ulertu dezazuen: ni optimista malenkoniatsu bat naiz. Motzean: idealista bat.

Aurkezpenak eginda, hasi gaitezen ba, irudimenari eragiten.

Imaginatzen hasita, imaginatzen dut euskal antzerkiak aurrera egitea erabakitzen duela. Molde eta korronte berriak esploratzeko grinez, **ikerketa eszenikoari merezi duen onarpena** ematen zaiola eta Euskal Herrian, Europa mailan punta puntako ikerketak izango direnak sortzen direla. **Aurrekari** izaten ausartzen garela! Waaa. Imagina...

Niri gustatzen zait pentsatzea euskal antzerkiak aurre hartuko duela eta ate berriak zeharkatuko dituela, lehenago inor egon ez den leku baten bila. Hartara, gure ogibideak **errespetua eta duintasuna** izango luke. Bide batez. Errusian bezala. Ba al dakizue Errusian aktorea den senide bat edukitzea medikua edo abokatua den senide bat izatea bezain prestigioduna dela? Berrero ere harrিতuta eh...

Amesten dudana euskal antzerki **abangoardista eta garaikide** hori lortzeko behar ditugunak bilatu beharko ditugu orduan.

Hasteko, egiturak beharko ditugu eta horretarako, lortzen hain zaila den “erakundeen fedea” eskuratutzea beharrezkoa da. Eskakizun bat egiteko aprobetxatu dezaket? Egingo dut. Erakundeetako jendea, ez dakit non zaudeten, nik oso urruti sentitzen zaituztet. Hala ere eskakizun bat:

Aprobetxatu ezazue! Sinistu! Gau eta egun, aste barruan eta jaiegunetan lana pasioz egitera ohituta gauden langileak gara sortzaileak; aprobetxatu eta emaguzue plataforma egonkor bat eta guk **altxatuko dugu gizarte kulturaz eta duintasunez**.

Euskalgintza eta kulturgintza herri honek pasioz lantzen ditu. Aprobetxatu! Aprobetxatu hartzeko baina aprobetxatu ere emateko.

Bihurtu dezagun, bada, artea politikaren mintzakide zuzen; izan ere, berebizikoa du arteak gizarte eraldatzeko ahalmena. Eta **gizarte baten artearen ahulezia ez da gizarte aske baten seinale**.

(Ez litzateke lehenengo aldia izango nire buruari galdetzen diodana ea nagikeria politikoa den edo kontzieteki hartutako erabakia den askatasun falta hau. Izan ere, kultura, artea eta euskara ez erdiguneratzeak, sumantzen den ekintza falta intentzioz hartutako erabakia dela azaleratzen du).

Suposatzen dut badakizuela Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasota dagoela kulturaren parte hartu eta arteaz gozatzeko eskubidea. Ez? 27. atala da. Aurretik hezkuntza eskubidea dago eta aurre, aurre, aurretik adierazpen askatasunaren eskubidea. Pentsa. Ba hori errespetatzeko gogo

sutsua nagusituko dela imaginatzen dut eta horretarako, **antzerkia zerbitzu** bat den ezkerro, hala erabilia izango dela amesten dut. Zerbitzu bat, bai, igerileku bat edo liburutegi bat bezala. **Guztiontzat eta publikoa**.

Orduan, dagoeneko egiturak izango ditugunez, horiek langilez beteko dira. BEZa, dudarik gabe, jeitsi egingo da, badakizue, giza eskubideengatik; eta herri handi eta hirietako antzokietan antzerki konpainia egonkorak egongo dira. Bertakoak langile publikoak izango dira. Imaginatzen al duzue? Erakunde publikoetatik bizi iraungo dute zuzendari, figurinista, jostun, dramaturgo, aktore, teknikari etabarrek, haien lantoki finkoak antzokiak izanik. Pentsa, zure hiriko antzerki taldea gidatzera dator ez-dakit-zein zuzendari, edo nire hiriko antzokira dator lanera urtez beste antzoki batean egon den badakit-zein-aktore. Eta jendea adi egongo da, eguneratua, futboleko fitxajeak bezala adi jarraituko dituzte han eta hemen denboraldiak egiten dituzten haien artista gogokoena.

Hau ez da utopia bat, hau Europako ekialdeko zeinbait herrietako errealitatea da. Zenbatek irudikatuko zuten hau nire aurretik... Herri nortasuna garatzeko helburuarekin hain zuzen ere.

Aktore baten ohiko lantokia antzokia izatea luxua iruditzen zaigun gizarte honek jakin badaki, gainera, konpainia egonkorrek soilik garatu dezaketela euren **hizkuntza, poetika, komunikatzeko modu propioa: berezkotasuna**. Etorkizunean irudikatzen dudana euskal antzerkiak, iraganean aipatutako erakundeen fedea eta prekarizazioaren amaiera behar du.

Prekarizazioa... Borondatea eta prekarizazioa anai-arreba diren garai hauetan, ikasiko dugu, behingoz, **bizirauten duen kultura**, edo hobeto esanda, **bizirauteko norbanakoen autoesplotazioa behar duen kultura, kultura prekariora dela**. Autokontratazioa, autoesplotazioa, autozentsura... dena da auto baina guk hautatu al dugu zerbaite?

Kultura osasuntsu bat sortuko dugula imaginatzen dut. Azken finean kultura soziala da, kontsumitzaileak gu geu gara, gizarte bera, gu gara gure kulturaren oinarria. Horregatik, Elkarrek duela hilabete batzuk argitaratutako datuak hobetuko ditugu. Gehiago izango garelako euskaldunak euskararen herrian.

Ados, honek Olentzerori eskutitzaren tankera hartu du, barkatu. Baina eskatzen hasita, eskatuko nuke ere merkatua, ez? Bide batez.

Olentzero, erakundeak, agintariak: mesedez, hemen etorkizun bakan bat irudikatzen saiatzen ari gara eta merkatutxo bat beharko genuke, **industria eta merkatua**. Sendoa mesedez, bai. Bai ba, badakizue, filmak, antzerkia, zirkua, etab. ekoizteko. Zuen esku orduan? Eskerrik asko.

Uf, irudimenaren giharrari nahikoa lan eman diot dagoeneko... Idealista xamarra izatea egotzi didate askotan, baina berdin zait, izan ere, horrek ekarri nau gaur zuenganaino, beraz, gaitz erdi.

Irudimen ariketa hau behar baino gehiago luzatu baino lehen, utzidazue azken gauza bat esaten:

Ausartak izatea erabakiko dugun garai honetan, badakigu gure kulturak isladatzen duela noraino iritsiko garen herri bezala. Honekin, ez dut antzerkia erantzuna denik esan nahi, antzerkiak aurrera jarraitzeko **behar ditugun galderak** egiten dituela baizik.